# / KAIXO! EKOADRILA GARA.

**Eskerrik asko** gu ezagutzera etortzeagatik.

***Eskerrik asko*** *por venir a conocernos.*



BASQUE GREEN DEAL

ecovidrio
ENTIDAD SIN ÁNIMO DE LUCRO

ecoembes

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# ANTES DE NADA, NOS PRESENTAMOS.






# GEURE BURUAK AURKEZTUKO DITUGU.






# ¿CÓMO SE FORMÓ ESTA EKOADRILA?

# TODO EMPEZÓ ASÍ.

*“Campaña de reciclaje de Ecovidrio, Ecoembes y Gobierno Vasco, centrada en las segundas vidas que damos a los envases cuando reciclamos”.*

En cuanto nos enteramos, nos presentamos para protagonizar la campaña. Porque quién mejor que nosotras/os (unos envases con vida) para representar estas segundas vidas.

- Con nombres y apellidos, para reflejar que de unos envases, descienden otros. ¡Venimos de una gran familia!
- Y con muy personajes muy "de aquí” (Mantekillaga, Fraskobide...), porque esta 2ª vida la disfrutamos gracias a todas las personas de Euskadi que reciclan. Que por cierto, ¡sois muchas! ¿Sabías que Euskadi está a la cabeza del reciclaje? Es para agradecéroslo.





# NOLA SORTU ZEN EKOADRILA HAU? HONELA HASI ZEN.

***“Ecovidrio, Ecoembes eta Eusko Jaurlaritzaren birziklatze-kanpaina, birziklatzen dugunean ontziei ematen dizkiegun bigarren bizitzetan oinarritua”.***

Jakin bezain laster, kanpainaren protagonista izateko aurkeztu ginen. Izan ere, bigarren bizitza horiek irudikatzeko ez da gu baino hoberik (ontzi bizidun batzuk).

- Izen-abizenekin, ontzi batzuetatik beste batzuk datozela erakusteko. Familia handi batetik gatoz!
- Eta oso “hemengoak” diren pertsonaiekin (Mantekillaga, Fraskobide...), birziklatzen duten Euskadiko pertsona horiei guztiei esker lortu baitugu 2. bizitza hori. Asko zarete gainera! Bazenekien Euskadi gehien birziklatzen duenetakoa dela? Eskertzekoa da.

# LA EKOADRILA VA A ESTAR PRESENTE EN MÚLTIPLES MEDIOS.

· Prensa en papel y digital
· Mupis de metro
· Marquesinas de autobús
· Spot de televisión
· Cuñas de radio
· Banners, Google Ads...
· Redes Sociales
· Web: ekoadrila.eus
· ¡Hasta vamos a tener nuestra propia canción! *Ojo, que se pega.*






# EKOADRILA HAINBAT HEDABIDETAN EGONGO DA

- Paperezko prentsa eta prentsa digitala
- Metroko mupiak
- Autobus-markesinak
- Telebistako iragarkiak
- Irratiko iragarkiak
- Banners, Google Ads...
- Sare sozialak
- ekoadrila.eus webgunea
- Geure abestia ere izango dugu! *Kontuz, buruan sartzen da eta!*

# ADEMÁS, ¡VAMOS A RECORRER TODO EUSKADI!

Como acción estrella, vamos a recorrer toda Euskadi, sacando sonrisas y resolviendo dudas sobre reciclaje. Nuestro tour tiene un claro fin didáctico. Quien participe en el Test de la Ekoadrila, el test de reciclaje, se lleva un regalo: una bolsa de algodón orgánico 100%.

*Tú, como ves, ya te has llevado ya tu bolsa sin hacer el Test. Tienes enchufe.*




# GAINERA, EUSKADI OSOA ZEHARKATUKO DUGU!

Ekintza nagusi gisa, Euskadi osoa zeharkatuko dugu, irribarreak ateraz eta birziklatzeari buruzko zalantzak argituz. Gure itzuliak helburu didaktiko argia du. Ekoadrilaren Testean, hau da, birziklatze-testean, parte hartzen dutenek opari bat eskuratuko dute: % 100 kotoi organikozko poltsa bat.

*Ikus dezakezun moduan, zuk dagoeneko lortu duzu zure poltsa, testa egin gabe. Entxufea daukazu.*


/EKOADRILA TEST
Birziklapenaren Testa / El Test del Reciclaje
/KAJAGUREN
/DETERGENTEBERRI
/LATABURU
/TETRABRICKONDO
www.ekoadrila.eus
/KAJAGUREN KARTOIAGOITI
ANDREA
/DETERGENTEBERRI MANTEKILLAGA
JAUNA
/EKOADRILA TEST
ekoadrila.eus

# VAMOS A TENER NUESTRAS PROPIAS REDES SOCIALES...

Una redes con un claro fin didáctico y lúdico para seguir inculcando la cultura del reciclaje y resolviendo dudas.

Cada envase va a tener su propio perfil en Instagram:
@detergenteberri
@kajaguren
@fraskobide

Y además vamos a crear un perfil conjunto de la ekoadrila en Facebook: @ekoadrila.

¡Síguenos, va a estar divertido!
¡Y te puedes llevar premios!



@fraskobide



@detergenteberri



@kajaguren



# GURE SARE SOZIALAK IZANGO DITUGU...

Helburu didaktiko eta ludiko argia duten sareak, birziklatzearen kultura txertatzen eta zalantzak argitzen jarraitzeko.

Ontzi bakoitzak bere profila izango du Instagramen:
**@detergenteberri**
**@kajaguren**
**@fraskobide**

Eta ekoadrilaren profil bateratua sortuko dugu Facebooken.
**@ekoadrila**

Jarrai gaitzazu,
dibertigarria izango da!
Eta sariak lor ditzakezu!

# ... Y NUESTRA PROPIA PÁGINA WEB

www.ekoadrila.eus

Aquí resolvemos todas las dudas sobre reciclaje.
Y si rellenas el Test Definitivo del Reciclaje,
puedes ganar una experiencia sostenible.

## Vamos a sortear 4 grandes premios:

- Fin de semana para 2 en las Cabañas en los Árboles de Zeanuri (Bizkaia).
- Ruta en barco para 2 por los Flysch de Gipuzkoa.
- Menú para 2 en el Azurmendi, el restaurante más sostenible del mundo.
- Fin de semana para 2 en Hotel Arima de Donosti, uno de los más sostenibles de Europa y parte de Small Luxury Hotels of the World!



# ... ETA GURE WEBGUNEA www.ekoadrila.eus

Bertan, birziklatzeari buruzko zalantza guztiak argituko ditugu.
Eta behin betiko birziklatze-testa betetzen baduzu, esperientzia jasangarri bat irabaz dezakezu.

## 4 sari handi zozketatuko ditugu:

- 2 pertsonentzako asteburu bat Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan (Bizkaia).
- 2 pertsonentzako itsasontziko ibilbidea Gipuzkoako Flyschetan zehar.
- 2 pertsonentzako menua Azurmendin, munduko jatetxerik jasangarrienean.
- 2 pertsonentzako asteburu bat Donostiako Arima Hotelean, Small Luxury Hotels of the World katalogoa jasota dagoen Europako jasangarrienetako bat.



# Y AHORA, CONTADO EN SERIO.

*(por si necesitas algo más oficial)*

Puedes descargarte este documento, con sus textos y sus imágenes, aquí: www.ekoadrila.eus/dossier.pdf

**Una campaña de reciclaje muy "de aquí" Familias de envases con vida propia agradecen a toda Euskadi su implicación con el reciclaje.**

Ecovidrio, Ecoembes y Gobierno Vasco lanzan una campaña de reciclaje en Euskadi, centrada en las segundas vidas que se generan con cada envase que se recicla.

Para representar estas segundas vidas, se ha dado vida, literalmente, a una serie de familias de envases, que hablan, cantan y nos agradecen que reciclemos tanto en Euskadi; estamos a la cabeza en toneladas recicladas, según los últimos datos.

Estos envases tienen una personalidad muy "de aquí" y forman parte de la Ekoadrila. La Ekoadrila va a cobrar vida y durante 6 semanas va a recorrer toda Euskadi, resolviendo dudas sobre reciclaje y repartiendo regalos (una bolsa elaborada con algodón orgánico 100%) entre todas las personas que participen en el Ekoadrila Test.

Sus protagonistas son: **Detergenteberri**, descendiente de envases de plástico. **Lataburu**, descendiente de múltiples envases metálicos. **Kajaguren**, descendiente de cartones y papeles. Y **Fraskobide**, descendiente de botellas y tarros de vidrio. Estos personajes nos dan las gracias por reciclar y nos animan a seguir haciéndolo igual de bien.

**Una campaña muy didáctica**
La campaña tiene un alto componente didáctico ya que, a día de hoy, aún quedan algunas dudas sobre el reciclaje que con esta campaña se quieren solventar.

Dudas del tipo: ¿Los aerosoles se reciclan? ¡Sí! En el contenedor amarillo. O ¿hace falta quitar las tapas de los tarros de vidrio cuando los echamos al contenedor verde? Efectivamente. Otro ejemplo: un juguete de plástico, como es de plástico, ¿se echa en el contenedor amarillo? No, aunque sea de plástico, no es un envase. ¡Al amarillo, solo envases!

**Una comunicación multicanal**
Para dar la mayor difusión posible al mensaje pro-reciclaje, la campaña va estar presente en múltiples medios gracias a una estrategia de comunicación 360º:

· Anuncios de prensa
· Mupis de metro
· Marquesinas de autobús
· Folletos
· Spot de televisión
· Cuñas de radio
· Banners, Google Ads...
· Redes sociales
· Web: www.ekoadrila.eus

Los envases **@detergenteberri @kajaguren @fraskobide** tendrá su propio perfil en Instagram, y un perfil conjunto de la **@ekoadrila** en Facebook.

En la web **www.ekoadrila.eus** se podrán encontrar consejos sobre el reciclaje y se podrá acceder al sorteo de 4 grandes experiencias sostenibles, solo por rellenar el test de reciclaje.

- Fin de semana para 2 en las Cabañas en los Árboles de Zeanuri (Bizkaia).
- Ruta en barco para 2 por los Flysch de Gipuzkoa.
- Menú para 2 en el Azurmendi, el restaurante más sostenible del mundo.
- Fin de semana para 2 en Hotel Arima de Donosti, uno de los más sostenibles de Europa y parte de Small Luxury Hotels of the World.

Esta campaña multicanal estará vigente en Euskadi durante todo el verano y terminará la primera semana de septiembre.

# ETA ORAIN, ZINEZ ESANDA.

*(zerbait ofizialagoa behar baduzu)*

Dokumentu hau deskargatu dezakezu
hemen, bere testu eta irudiekin
www.ekoadrila.eus/dossier.pdf

**Oso "hemengoa" den birziklatze--kanpaina. Ontzi bizidunen familiek eskerrak eman nahi dizkiote Euskadi osoari, birziklatzearekin duten inplikazioagatik.**

Ecovidriok, Ecoembesek eta Eusko Jaurlaritzak birziklatze-kanpaina bat jarri dute martxan Euskadin, birziklatzen den ontzi bakoitzarekin sortzen diren bigarren bizitzetan oinarritua.

Bigarren bizitza horiek irudikatzeko, ontzi-familia batzuei bizitza eman zaie. Ontzi horiek hitz egin, abestu eta eskerrak ematen dizkigute, Euskadin horrenbeste birziklatzeagatik; izan ere, tona gehien birziklatzen dituen lurraldeetako bat gara, azken datuen arabera.

Ontzi horiek oso "hemengoak" dira, eta Ekoadrila osatzen dute. Ekoadrilak bizitza hartu du eta, 6 astez, Euskadi osoa zeharkatuko du. Birziklatzeari buruzko zalantzak argitu eta opariak banatuko ditu (% 100 kotoi organikoarekin egindako poltsa bat) Ekoadrilaren Testean parte hartzen duten pertsona guztien artean.

Hona hemen protagonistak: **Detergenteberri**, plastikozko ontzien ondorengoa. **Lataburu**, metalezko ontzi askoren ondorengoa. **Kajaguren**, kartoi eta paperen ondorengoa. Eta **Fraskobide**, beirazko botilen eta potoen ondorengoa. Pertsonaia horiek eskerrak eman dizkigute birziklatzeagatik, eta orain arte bezain ondo egiten jarraitzera animatu gaituzte: birziklatze-datuen arabera, Euskadi da tona gehien birziklatzen dituen lurraldeetako bat.

**Oso kanpaina didaktikoa**

Kanpainak izaera didaktiko nabarmena du. Izan ere, oraindik ere zalantzak daude birziklatzearen inguruan, eta kanpaina honekin, zalantza horiek guztiak argitu nahi dira.

Mota honetako zalantzak: Aerosolak birziklatzen al dira? Bai! Edukiontzi horian. Edo, beirazko potoen estalkiak kendu egin behar dira edukiontzi berdera botatzen ditugunean? Hori da. Beste adibide bat: plastikozko jostailu bat, plastikozkoa denez, edukiontzi horira bota behar da? Ez, plastikozkoa izan arren, ez da ontzi bat. Horira, ontziak bakarrik!

**Kanal anitzeko komunikazioa**

Birziklatzearen aldeko mezua ahalik eta gehien zabaltzeko, kanpaina hainbat hedabidetan egongo da, 360º-ko komunikazio-estrategia bati esker:

· Prentsa-iragarkiak
· Metroko mupiak
· Autobus-markesinak
· Telebistako iragarkiak
· Irratiko iragarkiak
· Banners, Google Ads...
· Sare sozialak
· Webgunea: www.ekoadrila.eus

**@detergenteberri, @kajaguren eta @fraskobide** ontziek beren profila izango dute Instagramen, eta profil bateratu bat ere bai, **@ekoadrila**, Facebooken.

**www.ekoadrila.eus** webgunean, birziklatzeari buruzko aholkuak aurkituko dituzu. Era berean, 4 esperientzia jasangarriren zozketan parte hartu ahal izango duzu, birziklatze-testa betetzeagatik bakarrik.

- 2 pertsonentzako asteburu bat Zeanuriko Zuhaitz Etxeetan (Bizkaia).
- 2 pertsonentzako itsasontziko ibilbidea Gipuzkoako Flyschetan zehar.
- 2 pertsonentzako menua Azurmendin, munduko jatetxerik jasangarrienean.
- 2 pertsonentzako asteburu bat Donostiako Arima Hotelean, Small Luxury Hotels of the World katalogoan jasota dagoen Europako jasangarrienetako bat.

Kanal anitzeko kanpaina hau uda osoan zehar egongo da indarrean Euskadin, eta iraileko lehen astean amaituko da.

**Jarrai gaitzazu hemen** / Síguenos en

www.**ekoadrila**.eus

BASQUE GREEN DEAL

ecovidrio
ENTIDAD SIN ÁNIMO DE LUCRO

ecoembes

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO